

KOPLA URRATUAK

Bertso puskak ezpain ertzean
zaizkit ustekabeen eten,
ez zait gauza onik irteten,
hauek ahopean lehertzean.

Hitz multzo jas gabekoan,
arte berria delakoan,
ideien bidaia lausoa,
nora ezeranzko pausoa.

Behingoz jar dezadan bidean
hitzezko txalupa gaixoa,
baina lemazainak librean
igaro nahi luke itsasoa.

Hedabideen isuria
unean uneko irudia,
hango eta hemengo kontuak,
denboraren baitan onduak.

Han eta hemen egosten dena,
labetik hara datorrena,
gizartearen aldarria,
azken gauza berri-berria.

Bezperako giza zirkinak,
letra, irudi, hots bihurtuak;
egunsentiko hasikinak,
uhin-hegoetan indartuak.

Munduaren ikuspegia
gertakarien aurpegia;
horien erritmoz neurtzen da
nire egitekoen zerrenda.

Horra nire azpi-doinua,
berarenganantz naramana;
ni erakartzeko keinua,
ezin eutsizkoa zaidana.

Bai dela korronte bortitza,
horien bidez sartzen dena!
Libre izan nahiko nuke hitza
eta kontrolatzeko sena.

Ideen saltsa eta lehia,
elkarri gaina hartu nahia,
debate eta eztabaidak
disimuluzko tirabirak.

Haiek modernitate airez
hitzezko jario bitsetan...
aspertu naiz halako batez
eta jarri naiz ametsetan.

Nik ere badut neure era,
neure musika, kontaera,
besterenaz dantzatu gabe,
ni ere bainaiz altxor jabe.

Kanpotiko ahots hori bai
kolore-jokoz datorkigu;
dena bistan jarriz ikasgai
hainbat gauza agertzen dizkigu.

Baina barneko hitz apalari
egin nahi nioke nik tarte,
sakoneko deiari adi
beste zer guztitik aparte.

Hor dago Maitearen hitza,
isilean datorkidana,
kontzientziaren bizitza
ñabarduraz janzten didana.

Badut barne-mundu eder bat,
hedabideetatik harat,
altxor ezkutua dudana,
baina ezezagun zaidana.

Hori nahi nuke arakatu,
ezkutukoa bistaratu;
haitzulo horretara hurbildu,
kontzientziaren baitan bildu.

Hona nik dudan egingaia:
ezezagunera bidaia;
abenturarik ez da izango.
Baldin bada, guregan bego,
inori ez diot esango...

Luis Baraiazarra Txertudi
2016ko otsaila